

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1997ko abenduak 18 • 135. zka.

Trena

30 urte desagertu zenetik

© Paul Zuazabeitia

Kepa Errasti: Kakalaldo antzerki taldea ■ Kirolak: Joxemi Elizburu profesionaletan

Badator Olentzero

TOAILA JOKUAK
(3.150 ptatik aurrera)
MIREN EHUNAK



BEBE PIPI (2.500 pta.)
CENTRO CIEN



NIKON ARGAZKI MAKINA
(10.570 pta.)
URKIOLA argazkidenda



EMAKUMEZKOEN ERLOJUA
Raymond Weil
MARTIN bitxitegia



GIZONEZKOENTZAT PARKA
(35.000 pta.)
ASENSIO jantzidenda



NESKEN KONJUNTOA
Txandala, bufanda eta txamarra
AITZIBER umeen jantzi denda



INOXCROM ESTUTXEA
Boligrafoa eta luma (2.250 pta.)
IBARRA ESTANKOA



EMAKUMEZKOEN BARRUKO ERROPA
LEINTZ
ROSI



LA DAMA Y EL VAGABUNDO PELIKULA ETA PAMPINA
(2.995 eta 5.495 Pta.)
DON VIDEO



GORE-TEX BOTAK eta GUANTEAK
(15.995 eta 2.490 pta.)
ESKO SPORT (Eskoriatza)



GIZONEZKOENAKO ERLOJUA
FESTINA
MARTIN bitxitegia



OPARIAK EGITEKO AUKERA UGARI:
KOLONIAK, PAINUELOAK...
PAGALDAI



EMAKUMEZKOEN BARRUKO ERROPA IRIARTE UMEEN DENDA

UMEENTZAKO ERROPA
Gazteenak ere modan
IRIARTE UMEEN DENDA



Zorionak eta urte berri on!

Zer eskatu diozu Olentzerori?

Julen Aperribai

(3 urte)

Trena eskatu diot, tren gorria eta baita tronpeta ere, bestea apurtuta daukat eta.

Ondo portatu naiz eta Olentzerok ez dit aurten ikatzik ekarriko.



Arantzazu Arietaleanizbeaskoa

(Ikaslea)

Ordenadorea eskatu diot, eskolan lanak ordenagailuz egitea eskatzen digute eta.

Osaba-izeben etxean ere erregaluren bat izango dudala uste dut.



Tamara Fernandez

(10 urte)

Ordenagailua, ondo portatu naiz eta. Jolas egiteko eta lanak egiteko eskatuko dut ordenagailua.

Erregalu gehiago ere izan-go dudala uste dut.



Jose Antonio Guerrero

(Langilea)

Ezer ere ez. Ez dut ezer pentsatu. Zeozer izango dudala uste dut, erregalua pozik hartzen dira beti.

Aurreko urteetako osasuna baino hobea izatea eskatuko diot.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Buzoietatik ohostu

Azken egunotan kexa asko jaso ditugu buzoietatik Aretxagazetak lapurtzen dituztela eta. Arazo horri konponbidea ematea ez da horren samurra, gure esku ez baitago. Hala ere, ohar honen bitartez besteen buzoietatik Aretxagazetak kentzen dituzten horiengana zuzentzen gara: utzi besteena baketan, guk ez ditugu bazkideak galdu nahi eta zuek ere Aretxagazeta zuen etxeko buzoietan ikusi nahi baduzue egin zaitezte Aretxagazetako bazkide. Mesedez, utzi bakean bazkide direnen aldizkariak.

ARETXAGAZETA ELKARTEA

Urtarrilaren 9a arte

Gabonak direla eta, Aretxagazetak ere deskantsu egun batzuk hartuko ditu.

Hurrengo zenbakia urtarrilaren 9an kaleratuko dugu, gainera, urte berriarekin batera izango da berrikuntzarik, baina hori ikusteko ordurarte itxoin beharko duzue. Txoko hau aprobetxatuz, Aretxagazetako irakurle guztioi **zorionak eta urte berri ona** opa dizuegu Aretxagazeta elkarteko partaide guztion aldetik.

e s k u t i t z a



Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Julen Zuazabetia, Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

Kontxi Aizarna eta Imanol Urbietta

“Gurasoek umeekin kantatzea eta jolastea oso garrantzitsua da”

Kurtzebarri eskolako guraso eskolak antolatuta Kontxi Aizarna eta Imanol Urbietta Xirula Mirula taldeko kideak kurtzebarri eskolan izan ziren gurasoei kantak eta dantzak erakusten. Normalean ume eta irakasleekin aritzen diren arren, kasu honetan gurasoek etxean umeekin musika nola landu dezaketen erakustera etorri ziren.

Xirula Mirula taldeko sortzaileak ditugu Kontxi Aizarna eta Imanol Urbietta. Umeekin musikarekin zerikusia duten alorrek esperimintatzea du helburu talde honek eta bertatik sortu dira gaur eguneko umeen kanta ugari, horien artean: land-roverra, txiki-txikia, Martuteneko tren...

• **Zer da Xirula Mirula taldea?**

Musikagintzarako saialekua da, hau da, umeekin musikako arlo desberdinak esperimintatzen ditugu: psikomotrizitatea, garapena... Ondoren zintak, liburuak, bideoak argitaratzen ditugu.


• **Musikarekin esperimintatuz zein helburu jarraitzen da?**

Haurrak musikalki zer behar duen kontutan hartzen da, ez bakarrik kantak kantatzeko, mugimenduak ere bere garrantzia dauka. Mugimenduaren bitartez erritmoa eta psikomotrizitatea lantzen ditugu.

• **Zenbaterainoko garrantzia du musikak umeengan?**

Haundia. Txiki-txikitandik musika inguratua dago haurra. eta musikaz umeak psikomotrizitatea lantzen du, bere gorputzarekiko kontrola.

• **Gurasoen eginbeharra garran-**



Kontxi Aizarna

tzitsua da alor honetan?

Dudarik gabe, ume bati zinta bat eta bideo bat jartzea baino interesgarriagoa da gurasoek eurak kantatzea eta jolastea. Gainera garrantzitsua da eskola eta etxearen artean apurketa haundia ez egotea, lotura haundia izan behar du.

• **Zein ezaugarri dituzte umeen kantek?**

Erritmo lasaia dute melodia gero jartzen da. Hitzak oso sinpleak eta normalean mugimendua adierazten dutenak, eseri, jaiki, gora, oso hiztegi sinplea da.

Jatetxeen gida banatzen

Debaguek orain aste batzuk argitaratu zuen jatetxeen gida etxez-etxe banatzen ari dira Kurtzebarri eskolako ikasleak. Gidan, Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñatiko 100 jatetxetik gora azaltzen da, bakoitzak dituen ezaugarriekin, ordu-tegia, espezialitateak eta gainera, jatetxe bakoitzaren errezeta bat. Gidak 500 pezetako prezioa du.



Senideak-en martxa ibiltaria

Abenduaren Sean senideak taldearen martxa ibiltaria heldu zen Aretxabaletara. Gaztetxe parean ongietorria egin, eta ondoren, Urbaltz elkarteraino joan ziren guztiak batera.

Hogehi bat senidek parte hartu zuen martxaren helburua presoan Euskal Herri-ratzea eta hauen beharrezko hurbilketa eskatzea izan zen. Hori eskatzeko, martxaren autobus ibiltaria Euskal Herriko hainbat txokotan izan zen.

©kindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Mitarte, 1 - Ifnoa: 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

Bazkari eta afariak

ERRETEGIA

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA

“Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan” liburuska kalean



“Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan (1497-1997)” liburuskaren eta erakusketaren aurkezpena egin zen abenduaren 12an Euskal txokoan. Ekitaldian Iñaki Urreta, liburuaren egileak, liburuskaren helburua aipatu zuen: “Leintztarrei gure historiaren zatia ezagutzeko aukera era samur batean laburbilduta ematea” hain

zuzen ere. Honekin batera, gure historiaren garrantzia aipatzerakoan, honek herriaren ibilbidea markatzen zuela eta “egiten dugunari zentzua ematen diola” azpimarratu zuen.

Jarraian, liburuaren edukina aipatu zen; 60 orrialdetako liburuska Otalorako ekitaldia, laburpen historikoa eta Leintz Bailarako hamarren argazkiak jasotzen dira besteak beste. Azalean Leintz Bailarako hamarria azaltzen den liburuska kioskoetan jarriko

da salgai 125 pezetan.

Bestalde, izenburu bera daraman erakusketa zabalik dago Euskal txokoan urtarrilaren 4a arte. Erakusketa garai hartako Tolosako Gipuzkoako artxibotik eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udaletik jasotako dokumentu zaharrek, XV eta XVI. mendeko lanbideekin lotutako tresnek eta beste hainbat bitxikerik osatzen dute.



Jende ugari hurbildu zen aurkezpen ekitaldira

Azatzako elizan konponketak

Hilabete inguru da Azatzako elizan konponketa obrak hasi zizutena. Teilatua egoera txarrean eta elizpea ia jauzteko zegoen. Ondorioz teilatua konpondu eta elizpea, arkuak eta ormak eusteko zutabea ere konpondu egingo dira. Obra hauez gain, eliza barruko ormak margotzeko asmoa ere badago, baina horretarako fonderik gelditzen den edo ez ikusi beharko da aurrenik. Obrak, auzotarrek, %10 Udalak, Gotzaitegiak eta Foru Aldundiak finantziatuko

dituzte eta urte amaierarako bukatzea espero da.

Koruetako elizan: aintzinako margoak

Bestalde, Koruetako elizan ere berrikuntza lanak egingo dira datorren urtean. Aurreko astean Gotzaitegikoek bisitatu zuten eliza eta Foru Aldundikoek orain hilabete. Eliza aztertu ondoren bertako pinturen garrantzia azpimarratu zuten, Gipuzkoan antzeko margorik ez dagoela eta hauen

mantentzea garrantzizkoa iritzi zuten. Itxura denez, Koruetako elizak barruko ormetan dituen pinturak aintzinakoak dira eta Gipuzkoako gainontzeko elizetan ez dago horrelakorik.

Obra hauen finantziaketarako Udala, auzoa, Foru Aldundia eta Gotzaitegira eskatu da dirulaguntza. Baimena eta oniritzia eman bezain laster, datorren urteko udaberri aldera edo hasiko dira berrikuntza lanak Koruetako elizan.



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

AMETS
TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

OSKAR

HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 79 71 69

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Kiroletxean proposamenak jasotzeko gertu

Eraikuntza guztiek behar izaten dute nolabaiteko mantentze bat eta berrikuntzarik ere, baita herriko kiroltxeak ere badu horrelako premiari. Datorren urteko aurrekontuetan kiroltxeko barne konponketa sartu nahi denez, azken hiru asteotan kiroltxeko erabiltzaileei zuzendutako inkesta orria jarri da kiroltxean. Asier Mugika kirol teknikariaren adierazpenetan "98ko plangintza prestatzeko orduan kiroltxearen egoera zein den ikusi eta zein premia aurreikusten diren jakitea beharrezkoa baita".

Inkestak hiru atal desberdin jasotzen ditu: lehena erabiltzen diren instalazioen inguruko balorazioa; bigarrena kiroltxearen ekipamenduaren ingurukoa eta azkenik antolatzen diren ekintzei buruzkoa da. Bereziki hiru gai hauen inguruko balorazioa eta proposamenak egiteko aukera ematen da bertan.

Orain artean jende dexentek erantzun du inkesta eta hori eskertzekoa dela dio Asierrek. Honekin



98ko plangintza bideratzeko kontutan hartuko dira herritarren proposamenak

batera, 98ko plangintza bideratzeko, herritarren proposamenak entzun eta jasotzeko gertu dagoela azaldu du kirol teknikariak. Horretarako kiroltxera joan edo eta telefonotik deitu eta Asierrekin harremanetan jartzea nahikoa da.

Gimnasio lekuz aldatuta

Aldaketa berriak behar berrietara egokitzen dira eta oraingo honetan ere horrela gertatu da kiroltxeko gimnasioaz. Gimnasioa eta rokodromoa dena batera egoiteak leku arazoak azaltzen zituen eta horregatik gimnasioko materiala squash gelara aldatu da. Kirol teknikariaren esanetan, squash gelak

erabiltzeko eskaria jeitsi egin denez, gela bat squasherako erabiliko da eta bestean gimnasioa kokatu da momentuz behintzat.

Bestalde, rokodromoa jarri zenetik, orain 10 urte, inbertsio eta konponketa gutxi egin da bertan. Hau ikusita, Murruxoko kide batzuk aldaketa eta konponketa batzuk egin dituzte bertan.

Baja emateko epea

Kiroltxeko bazkide diren eta datorren urterako baja eman nahi dutenek edo aldaketaren bat egin nahi izanez gero urtea amaitu baino lehen kiroltxetik pasa beharko dute eta horren berri eman.

JOSU
HARATEGIA
Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak
Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

IZOTZ
Taberna
Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta

BASABE
jatetxea
Basabe bidea z/g
Tfnoa: 79 91 84
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP
Garbiketa
orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

IMANOL
JANARI DENDA
Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAleta


Zorionak eta eskerrik asko bezero guztiei
Esko Sport
Intxaurtxueta, 5 ☎ 71 52 96
ESKORIATZA
Larunbat arratsaldetan zabalik

Parrokiako misio taldea sortu da herrian

▣ **Colombiako hurrei bekarako dirulaguntza lortzeko lehen proiektua martxan jarri dute**

Sortu berri da parrokiako misio taldea. Parrokiaren barne dagoen Sendotzako Pastorealeko Gazte Taldearen ekimenez sortu da eta Sendotzako monitore eta gazteak daude bertan. Euren lehen proiektua martxan da dagoeneko: Colombiako Girardot herriko Espiritu Santo Ikastetxean, lehen maila eta batxilergoko ikasketak burutzen dituzten hurrei beka emateko dirulaguntza lortzea. Gasteizko AMAT (Ayuda Marianista al Tercer Mundo) taldeari lagunduko diote egin behar honetan.

Sendotzako gazteak motibatu


Taldea sortzearekin Sendotzako gazteak motibatu eta jarraipen bat ematea nahi izan dela jakinarazi digu Aintzine Mendia sendotzako partaideak, "sendotza ez baita astean behin batzarra egitea soilik. Alde horretatik hutsunea nabari genuen eta beste bete behar bat ere bagenuela ikusirik taldea sortu da".

Talde irekia izango da eta munduan zehar lan egiten duten misio

komunitate desberdinei laguntzea du helburu nagusia, batez ere behar gehien dituzten hirugarren munduko lurraldeei. Modu honetan, hirugarren munduaren alde lanean diharduten pertsonei laguntza emango die; han dauden beharren berri eman eta gizartearen kontzientzia sortzen saiatuko da.

Gabonetan ekintzak

Aurrean aipatu den moduan, 97-98. urterako proiektu nagusia eskuartean dute: Colombiako Girardot herriko Espiritu Santo ikastetxean lehen maila eta batxilergoko ikasketak burutzen dituzten 5-8 ikaslerendako beka lortzea nahi da. Kontutan izan behar da, kurto baterako haur batentzako beka erdiak 20.000 pta. suposatzen dituela. Horrek, 100.000tik 160.000 inguruko dirulaguntza esan nahi du. Proiektua aurrera eramateko gabonetan bertan postalak eta kamisetak jarriko dituzte salgai. Hilak 23an, bestalde, sendotzako gazteei zuzenduta, proiektua bideratzen den eskolaren



inguruko diapositiba emanaldia izango da. Gasteizko AMAT taldekoak etorriko dira eta edozein herri-tarrei ere zuzenduta dago saioa. Gabon egunez, berriz, lema bat ipiniz dirujasotzea egingo da kalean.

Misio taldeak lehen proiektuak eta asmoak martxan ditu, hala ere, hau hasiera besterik ez da eta aurrerago beste ekintzarik egitea ere pentsatzen dute.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

OPEL



Zerbitzu Ofiziala

- *Kotxe marka guztien konponketak*
- *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 •
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 /
Fax: 77 17 20
ARETXABALETA

Bi mozio onartu ziren 18 gai izan zituen plenoan

□ Euskararen erabilpen plana martxan jarriko da udaletxean

Pleno luzea izan zen astelehenekoa, guztira 18 gai tratatu ziren eta horien artean bi mozio onartu ziren. Juan Antonio Rodriguez alkatea eta Mikel Otero ezik gainontzeko zinegotzi guztiak parte hartu zuten plenoan, 11 guztira.

Onartutako mozioei dagokienez, lehena Amnistiaren Aldeko Batzordearena izan zen, Kepa Urraren tortura zigorra salatzen zuena. Puntuz puntu aztertu zen eta puntu bat ezik gainontzekoak EAJ, HB eta EAko kideen aldeko botuekin onartu ziren, PSE-EE, bestalde, abstenitu egin zen. Bigarren mozioak, Senideak egindakoak, EAJ, HB eta EAren bederatzi botu izan zituen alde, hemen ere PSE-EE abstenitu egin zen.

Gainontzeko gaiak

Plenoan tratatu ziren gainontzeko gaiak errepaso labur bat eginez, gai ugari eta desberdinak izan ziren. Alde batetik, Institutorako rektifikadora zilindrikoa eta plana erosiko ditu Udalak eta zazpi milioitan konkurtsora aterako da.

Bestalde, erdi mailako hirigintza teknikaria kontratatzeko oinarrietan aldaketak egin dira eta ostera argitaratuko dira aldizkari ofizialean.

Udalari dagokionez, bost ordenagailu eta lau impresora erostea onartu zen. Honen iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuko da,

enpresek euren aurrekontuak aurkez ditzaten.

Udaleko gaiekin jarraituz, euskararen erabilpen plana martxan jarriko da aurki udaletxean. Plana eskalategiko irakaslea den Karmele Agirregabiriak gauzatuko du eta egun erdiz lan egingo du udaletxean.

Euskararen inguruko gaiekin jarraituz, Loramendi eta Udalaren arteko merkataritza hitzarmena aurrera eramateko 400.000 pezetako dirulaguntza emango zaio Loramendi elkarteari.

Udalak Kurtzebarri mendian dituen egurraren esplotazioa, bestalde, Central forestal enpresari eman dio, 27 milioitako aurrekontua duena.

Datorren urteko ordenantza fiskalei buruzko igoera ere aipatu zen. Orokorrean %2ko igoera gertatuko da zerga eta tasetan baina badira salbuespenak, zaborrak esaterako %6ko igoera izango du. Igoera, inguruko herrietan baino txikiagoa izan ei da, horrela aipatu du Xabier Mendizabal udaletxeko idazkariak.

Bukatzeko, Udalak aurrerantzean Gipuzkoako Batzar Orokorrak, Leintz Bailaran egiteko proposamena egingo dio Foru Aldundiari. Gogoratu orain 500 urte hartutako erabakiaren arabera ezin direla Batzar Orokorrak Leintz Bailaran egin.

Ortzadarrekin kantuan

Gabonetako ohiturei jarraituz, Ortzadarrek baserriz-baserri kantuan irtengo du abenduaren 24an. Aurtengoa hirugarren aldia izango da eta aurrekoetan moduan jendea animatuko dela espero dute. Taldekoek adierazi dutenez, ondo pasatzeko aukera zoragarria da: goizean goiz irten, baserrietan gabonetako kanta abestu, hamarretakoa egin eta gero batutakoarekin, txorizo, arraultza, etabarrekin bazkaria egiten da. Ortzadarrek herritar guztiei gonbitea luzatzen die egun honetan parte hartzeko. Beraz, baserritar jantzi eta animatu zaitezte.

Belen erakargarria

Ortzadarrek bestalde, gabonetako beste ekintza batzuen antolaketan ere parte hartzen du. Olentzero eta Bizar zuri antolatzeaz arduratuko da eta guraso elkarte eta Udalarekin batera, errege kabalgatan ere parte hartuko du. Iaz moduan ahalik eta Belen erakargarri eta politena egitea da euren asmoa, animalia eta pertsonekin. Iaz oiloak, astoa eta beste hainbat elementurekin girotu zuten Belena. Aurten beste asmakizun berririk ere izango da. Laster izango da hori ikusteko aukera, ez da horretarako egun asko gelditzen eta.

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean

Gabonetako menua



Loramendi elkarteak antolatutako sukaldaritza ikastarotan Pili Otxoa Arantzazuko Sindika Hoteleko sukaldaria eta Silvana Huegun Debako Oilur Atsedeen-etxe sukaldaria izan ditugu.

Ikastaro bakoitzean 20 lagunetik gora izan dira, gehienak emakumeak, baina gizon batzuk ere ausartu dira sukaldeko plater goxoak ezagutzera.

Pilik, arrain budina, piper beteak, ahatea laranjarekin, tatin tarta eta gaztai tarta prestatu zituen. Silvanak, berriz, sukaldaritza begetarianoa: aguakate beteak, piper beteak eta gaztaina pastela.

Horietatik lau errezeta doaz ondoren:

Arrain budina

- Osagaiak:**
- 500 gr. arraina
 - Litro erdi esnegain
 - Litro erdi tomate frijitua
 - Piperrauts zuri pixka bat
 - Gatza

Nola gertatu:

Arraina egosi gatz koilarakada batekin. Batu arraultzeak "espuma puntura" arte (asko batu). Esnegaina, tomate, piperrauts zuria eta gatz gehitu eta nahastu. Arraina epeltzen utzi eta epeldutakoan xehetu eta aurreko masarekin nahastu eta moldean sartu.

Labean Maria bainuan 180° tara ordu betean jarri. Nahi izanez gero, albarekin estali gutxiago lehortzeko.

Pili Otxoa

Ahatea laranjarekin

- Osagaiak:**
- Ahate bat
 - Olio
 - Gatza
 - Bi kipula, hiru azenario eta bi tomate zurituta
 - Ardo zuri basokada bat
 - Salda basokada bat (Ura ere izan daiteke)
 - Azukarra

Nola gertatu:

Lapiko batean olio ondar batekin ahatea eta gatz bota. Gorritu arte utzi. Gorritutakoan kipulak, azenarioak eta tomate txikituta bota. Bi ordutan su motelean eduki. Ondoren ardo zuria eta salda nahastu. Ahatea atera. Azukrea eta urarekin almibarra egin eta bi koilarakada ozpin eta Karpi edo Naranja likorra gehitu. Ahatearekin egosi ditugun barazkiekin batera pasapurean xehetu.

Ahatea zatitu eta saltsa gainetik bota. Laranja azal batzuk juliana erara ebakita egosi, laranja txikitu eta biak adornu moduan jarri.

Pili Otxoa

Aguakate beteak

Bi lagunentzat

- Osagaiak:**
- Aguakate heldu bat
 - Tomate bat
 - Azenario haundi bat
 - Letxuga hosto batzuk
 - Maionesa

Nola gertatu:

Aguakatea luzetara erdibitu, goilara batekin hustu eta azalak gordeko ditugu. Aguakatea eta tomate lau-kitxoetan ebaki eta azenarioa railatu ondoren, dena maionesarekin nahastuko dugu. Honekin aguakate azalak (edo oskolak) beteko ditugu. Letxuga Juliana erara moztuko dugu eta plater batean jarri; gainean aguakateak jarri eta listo.

Silvana Huegun

Gaztaina pastela


- Osagaiak:**
- 1 kg gaztaina erre (zurituta)
 - Esnea
 - Gatza
 - 100 gr. azukre
 - Anis aleak
 - Canela hautsa
 - 200 ml esnegain likidoa
 - 4-5 arraultze

Nola gertatu:

Ur pixka bat eta esnearekin gaztainak egosten jarri (ondo estalita egon behar dute). Gatz apur bat, azukrea eta anis ale batzuk ere botatzen zaizkio. Gaztainak bigundu arte utzi. Egositakoan dena batitu eta hozten utzi. Hoztutakoan esnegaina eta arraultzeak gehitu eta berriz ere batitu. Aurrez mantekilarekin igurtzitako molde batera bota eta ordu betez labean eduki.

Silvana Huegun

Gorostia, basoetako maitagarria



Gorostia

Urtero bezala, aurten ere Gabonak usadio eta sinboloz gainezka datozkigu. Nork ez du ezagutzen Olentzero, edota gabonetako arbola, edo turroi eta polboroiak, eta baita kanpaitxo eta gorostia ere... Gorostia?

Urteen poderioz ohitura bihurtu zaigu gorosti hostoak txokoren batean edukitzea bere fruitu gorriek etxera datozen bisitarien begiak zula ditzaten. Hori horrela, desagertzeko arriskutan ere egon zen duela ez urte gehiegi, dena dela zorionez errekuperatzerik ere izan du. Baina zer da ba hainbeste aipatzen ari garen landare hau?

Guk gorosti bezala ezagutzen dugun honi, herrialde anglosajoiak holly-tree esaten diote eta gaztelaraz acebo deritzo. Izenen zurrumbilo honetan ideia paregabea izan zuen Linneo jaunak, izen internazionala ipini zionean: *Ilex aquifolium*.

Lau edo sei metro har ditzakeen

zuhaixka honek azal leun grisaxkaz estalita dauka zurtoina, non hosto dextente gogorak ezartzen baizaizkion. Hosto hauek iraunkorrek direnez, beti berde mantenduko zaizkio landareari. Berauen izakera ondulatuak, ordea, punta zorrotzak sortarazten ditu ertzetan. Berez berde ilun distiratsuak imaginatzen baditugu ere, azpialdetik apalagoak eta mateagoak dira.

Izatez espezie monoikoa dugu gorostia, honek esan nahi du landare arrak eta emeak dituela, landareetan gehiegi ematen ez den kasua izanik. Loreak, beraz, unisexualak ditu, bi petalo zuriz babes-tuak eta egia esan nahiko txikiak.

Dena dela gure gaurko protagonistaren ezaugarri nabariena fruituek osatzen dute. Globo itxurako drupa gorriak dira, non lau hazi gordetzen diren. Multzoka ageri dira eta txoriek biziki maite dituzte. Zookeria da, beraz, gorostiaren dispersio modu nagusia, hau da, animalietaz baliatzen da eremu zabalak kolonizatzeke.

Gure zuhaixkak lurzoru karetsuak eta hezeak behar ditu ongi haziko bada, eta baldintza hauek nahiko erraz aurki ditzake gure basoetan.

Mikel Arroiabe

**T
X
i
L
A
R
R
A**

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABAETA

EXTRA

Deba Garaiko kazeta

Astearte, ostegun
eta larunbatero
kioskoetan salgai
50 pezetatan

Nafarroa etorbidea, 23
218 postakutxatila
Tel: 79 82 68
Fax: 79 43 03

BERALAN

KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

Aretxabaletako industrialdea S.A.

“ARINSA”

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABAETA

LOGOPEDIA ZENTRUA

ARRASATE

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 79 79 46
ARRASATE



Kepa Errasti

“Gustokoa dut maltzuraren papera antzeztea”

Kepa Errasti hamasei urteko atxabaltarra goi batxilergoko lehen urteko ikasketak burutzen ari da. Antzerkiaren munduko lehenengo esperientziak Kurtzebarri ikastolako seigarren mailan bizi izan zituen. Gerora, interpretazioaren artea gertuagotik ezagutzeko aukera galdu gabe, AEDk antolatutako ikastaro batean aritu zen. Egun, Kepa “Kakalaldo” antzerki taldeko partaide dugu eta “Nueva Zaragozako herritarrak” izeneko obrarekin, gure geografiako zenbait txokotan antzeztera ere iritsi da.



Kepari aspalditik datorkio antzerkiarekiko zaletasuna, Kurtzebarri eskolan zebilela, seigarren mailatik aurrera urtero antzerki aste bat egiten zuten. Bertan, ikasle pila bat elkartzen zen (tartean Kepa) batzuen eta besteen antzezlanen gozatzerara. Ordutik urte dexente igaro diren arren, antzerkiak oraindik ere Keparen aisialdiko parte garrantzitsu bat betetzen jarraitzen du.

Bi urte dala, otsailean, AEDk antolatutako antzerki ikastaro batean eman zuen izena. “Hasieran antzerkiarekin erlasionaturiko jokuak egiten genituen. Gure arteko izotz puska horrekin apurtzeko asmoz” komentatzen du Kepak. Baina gerora “Nueva Zaragozako herritarrak” entsaiatzeari ekin zioten. Asko landu ondoren laurogeita hamaseiko ekainean Arrasateko Amaia Antzokian

“Antzezlea izateko lotsagabetasun eta zabaltasun apur bat izatea ezinbestekoa da”

jendeaurreko lehenengo antzezpena gauzatu zuten.

Antzezlan hau, “denboraren semea” izeneko pertsonaiaren laguntzaz, historiako errege-erregina edota boteredun zenbait pertsonen egiki-niko epaiketan oinarritzen da: besteak beste Julio Cesar, Felipe II... Ondorioz, aro eta garai desberdinetako esklabu, morroi zein

herritarrek tarteko bat egitea lortzen dutelarik historiako pasarteetan. Nolabait, garai bateko herritar apalak ere, iraganaren parte direla errebindikatzeaz arduratzen da antzezlan hau.

“Kakalaldo”, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Azkoitia eta Mutrikun izan zen “epaiketa honen” berri ematen. “Ez genuen espero hain harrera ona izango zuenik gure lehenengo antzerkiak”.

Egun, hamabi lagunek osatzen dute “Kakalaldo” antzerki taldea. Astean behin elkartzen dira eta jada buruan beste proiektu txiki bat darabilte bueltaka: “Zubi gizakiak” izeneko antzezlan. Hurrengo lan hau maiatza aldera estreinatuko ei dute. “Bitartean eskenatokia, arropak etab. lortu eta entsaiatzen jarraituko dugu” adierazten du Kepak. “Zubi gizakiak” bi mila eta berrehungarren urtean kokatzen da. Bertan, European emandako krisi sakon baten ondorioz, Marokora emigratzen duen familia euskaldun baten bizipenak izango dira ikusgai.

Keparen ustez “edozein iritsi daiteke antzezle izatera, hori bai lotsagabe eta zabaltasun puntu bat edukitzea ezinbestekoa da”. Momentuz Kakalaldon oso gustora dago eta jada hurrengo antzerkira begira dago. Bide horri helduta, ea gerora Kepa antzelan gehiagotan ikusteko aukera suertatzen zaigun.

Andoni Arana



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34



“The Anglo-Vasco-Navarro Railway Company Limited”

Edurrak zuriz jantzitako 1967 ko San Silbestre egunean gure herriko eta inguruetak historiaren aro bat itxi zen, gure tren zaharrak, “Anglua” edo “Vasco-Navarrua”, azkenengo txispazo eta arnasestuak Gasteizera bidean bota baitzituen. Hortik aurrera, iturri gorri, portasol eta landetako pasonibetako barrerak betiko altzatuta geratuko ziren. Hala ere, trenarekin lotuta herritarrek ezagututako hamaika bazter eta anekdotek, zorionez, batzuren gomutan oraindik bizirik diraue.

Hasierak. Karlista gerraostea eta Bilbo aldeko industriaren garapena

Gure trenaren hasierak bigarren gerra karlistaren osteko Arabako egoeran kokatzen dira. Konkretuki 1879an arabar Herran anaiek, Arabako industri eta nekazal aktibitatea Bilboko portuarekin lotzeko helburuarekin, tren proiektu bat garatu zuten. Ekimen hau erabat pribatua izango da, aipatutako gerraren ondorioz fondo publikoak ez ei zeuden halako enpresetan parte hartzeko moduan eta.

1882. urtean Joaquin Herranek,

lortu zuen bai estatuko Legebiltzarraren eta Senatuaren onarpenarekin, trenaren konzesioa, deitura legal honekin: “Ferrocarril Económico de Durango a Estella pasando por Vitoria con un ramal de Arroniz a Lerín”. Berehala dirua nork jarri topetan hasi, eta, nondik eta, Londresetik etorriko zen trenaregia bihurtuko zuen kapitala; 1986an sortuko zen “The Anglo-Vasco-Navarro Railway Company Limited” eraikitzaile eta explotatzaile elkarteak, 570.000 libera (14.25 milioi pezeta) abiapuntuko kapitalarekin. 1887an

tarifak eta baldintza teknikoak finkatuta, proiektua onartu egin zen.

Trenaren proiektua defendatzeko argudio geo-ekonomikoak erabili ziren, garaiko mentalitateak, eta oraingoak ere, agintzen zuen legez: Estella-Gasteiz-Durango trenbideak 1.980 km² ko lurraldea bat elkar lotuko zuen, 210.000 biztanlerekin, eta aktibitate ekonomiko garrantzitsu batekin, beraz, trenaren inbertsioa epe ertainean errentagarria bilakatzeko aukera askorekin. Aretxabaletari dagokionez, merkantzia garraiorako

bezero potentzial hauek aitaketan dira dokumentuetan : zerraila fabrika (oraingo "tubos de precisión" fabrikako alde zaharrea kokatuta zegoen, eta geroago, beste enpresa batzurekin elkartuko zen, "Unión Cerrajera" sortuz), eta Posporo fabrika (herritarrontzako "fabrika zaharra"); bidaiarien bolumenari dagokionez, bertakoen joan- etorriaz aparte, herrian zeuden bi baiñuetxetara uda partean etortzen ziren baiñistak aitaketan ziren.

Gauzak aurreratzen joateko elkartearen injineri buruak, Carbó jaunak, 1887an Eskoriatzako La Hidalga jauregian azaldu zuen trenaren proiektua. Azalpena entzutera Atxabaltako José de Otalora herriko komisioren izenean eta Eskoriatzako hainbat agintari eta seme ilustre bertaratu

ziren. Ondoren, Eskoriatzako Alkateak Injinieruak esandako guztia euskeraz esplikatu zuen. Asmo eta berba dotore asko non-bait; martingalak geroxeago etorriko ziren.

Helburuak denak onak, baina horiek gauzatzekoan hamaika arazo suertatu ziren: prozesua aurrikusita baino dexente mantsoago joateagatik, trenbidea eraikitzeko hitzartutako 4 urteko epea luzatu egin behar izan zen, honek erakarriko zituen ondorio latzekin (elkarteko buruen destituzioa); langileen protestak soldata miserable eta batzutan ez ordainduengatik; lan-istripu ugari (1888an 8 hildako); expropiazio prozesu irregularragatik hainbat herritarren hasarrea. Adibidez, Eskoriatzan, inolako salerosketa edo expropiazio barik, trenbidearen errailak jarri

ziren, Ameriketako "far west"ean bezelatsu (honela dio 1893an Eskoriatzar jabe-kaltetuen talde batek Ministerio de Fomento delakoaren aurrean jarritako idatzian "...los empleados y trabajadores de la casa constructora se imponen y atemorizan a los que en defensa del sagrado derecho de propiedad se oponen a que se les desposea de lo que es suyo..."). Disparate horrek ekarri zituen bere ondorioak: 1893ko irailaren 27an Gasteizetik Eskoriatzaraino inaugurazio bidaiaren ostean, Bergarako epaitegiak aginduta, Eskoriatzan ipinitako errailak kendu behar izan ziren.

Estatuaren inkautazioa

Arazo ekonomikoak zirela eta, obrak bukatzeko jarritako 4 urteko epea luzatu egin behar izan zen, behinbehineko inkautazio batzun artean. Baina ekonomikoak ez ezik, arazo tekniko latzak ere egon ei ziren. Adibidez, hasieran jarritako errailak aldatu egin behar izan ziren, burdinezkoak eta larregiko meheak izateagatik; horien ordez berriak jarri ziren, sendoagoak, zabalera metrikoan eta galtzailuan egindakoak, eta ondorioz jarritako egurrezko trabiesen %60 ere aldatu egin behar izan zen. Hainbeste ipini eta kendu, Ingelesek ekarritako sei lokomotoretatik, bi mekojota gelditu ziren eta beste laurak, egoera larrian. Lurrunak mugitzen zituen tramankulu hauek honako enpresek egindakoak ziren: Falcon Engin and Car Works. (Lochboronch), Societé St.Leonard.(Lieja) eta Maning Wardle and Co. (Leeds).

Baldintza eskas horietan egindako birmoldaketek ez zituzten arazoak guztiz zuzendu, eta 1903an elkartea kiebra puntuan ikusita, estatuko "Primera División de Ferrocarriles"ek behinbetiko

...1887an Eskoriatzako La Hidalga jauregian azaldu zuen trenaren proiektua.

Azalpena entzutera Atxabaltako José de Otalora joan zen herriko komisioren izenean. Ondoren Eskoriatzako alkateak guztia euskeraz esplikatu zuen



© Paul Zuazabeitia

Eskoriatza. Gasteizeruntz hurrengoko geltokia: Mazpela

inkautatuko zuen trenbidearen eraikitze eta zerbitzuaren explotazioa. Inkautazioaren ondorioz "Anglo" berbia desagertu egingo zen, elkarte berria "Vasco-Navarro" izen hektoplasmarekin geratuz. Beste ondorio bat: hasierako proiektuan jarritako Durango abiapuntuaren orde, Mekolalde ordezkatu zuen, auzo honek Zumarraga eta Maltzagatik orduen, eta oraindik ere, pasatzen ziren trenbide biak uztartuz.

Proiektua aurrera zihoala, Nasmith-Wilson eta La Maquinista Terrestre Marítima eraikitzaileek egindako lurrin lokomotorak ekarri ziren.

Inaugurazioa

Gauzak itxura bat hartuz joan ziren, eta 1916ko urriaren 4an, trena Eskoritzara heldu zen dotore asko; 17an Atxabaltak ezagutuko zituen bere ke, lurrin eta zaratak, eta 1918ko otsailean, Arrasatek. Azkenik, 1919ko irailaren 3an Gasteiz-Mekolalde zati osoa inauguratu zen, orduko kronikak diotenez zeharkatutako herrietan sekulako ikusmina sortuz; ondoren, diskurso eta guzti, Arrasateko Union Cerrajeran jaun txit gorenendako emandako banketiaz bukatuko ziren ospakizunak. Esan behar da UCEMek papel oso garrantziskoa jokatu zuela Mekolade-Arrasate trenbidearen proiektuan, 1915ean lortu baitzuen zati horren kontzezioa, Bilbo-Durango-Zumarraga eta Maltzaga-Donostia trenbideen "Compañía de Ferrocarriles Vascos" elkartearen kaltetan.

Elektrifikazioa

20 urte emango zituzten lurrinezko makina haiek gure bailadan gora eta behera, jo eta ke. Baina 30. hamarkadaren erdi aldean suertatutako ikatzaren prezioaren igoerak eta garapen teknologjikoak bizkortu egin zuten trenbidearen elektrifikazioa.

1936-37 urtetan, Gudariak Muru eta Untzillan eta "Nacionalak" Atxabaltako kaleetan elkarri tiroka



Trenaren desagerpena latza izan zen Marindarrentzat

... disparate horrek ekarri zituen bere ondorioak: 1893an Bergarako epaitegiak aginduta, Eskoriatzan ipinitako errailak kendu behar izan ziren.

eta kañonazoka, trenbidea elektrifikatzeko "katenaria" deitzen zaion aireko kableak botatzen hasi ziren, lurrinaren indarra elektrizitatearekin ordezkatzeko. 1938 urte hasieran, Txirritaren bertsoek esaten duten legez, "...garai batean ez genekien/ elektrifikarrik bazala/ orain ur hotzak dabilki trena / lehen irakinak bezala...", gure trena, ilintixak hotzizuta, elektrizitatearekin mugitzen hasiko da. Iberdueroko turbinetatik pasatutako urak sortzen zituen 30.000 korrante kontinuo Voltak, Eskoriatza eta Bergarako estaziño ondoko etxetransformatoreetan 1500 Voltetara transformatuko dira. Siemens eta Navalek egindako makinek karreatuko dituzte bidaiarien metalezko bagoiak eta merkantzien egurrezkoak, lehen baino dexente ixilago.. Makina hauek izango ziren urte askotan Atxabaltan egingo ziren lapiko, zerraila, oinetako, komuneko egurrezko tapak, fundizino eta

laminazioko piezak, kanpoko merkatuetara eramango zutenak, eta janari eta edariak, botikak, kartak, zineko pelikulak, makinak, animaliak, hildako kajak, edozelako pakete partikular eta abar luze bat herrira ekarriko zutenak.

Trenaren munduko adituek esaten dute garairako maila oso ona zeukala "Anglua", bai teknika aldetik eta bai zerbitzuaren aldetik. Dena dela, nabaria da 60. hamarkadaren erdirarte behintzat, gure estruktura sozio-ekonomikoan ondo errotutako bitarteko bat zela, edozein lekutara joateko erabiltzen zen garraioa baitzen, bai zuzenean, bai Maltzaga eta Gasteizekin konbinazioa eginez. Trena egun-egunerokoa zenez, zeinek ez ditu entzun gerraosteko estraperloari buruzko suspenseko historiak, edo langile, ikasle, eta San Juan, Santo Tomas eta Pazko jaietako juergisten gorabeherak interbentoreekin (jai egun horietan tren bereziak egoten

ziren gabez), edo bagoietako argia tuneletan joaten zenean, edota estazioan ezkon barri, atxilotu edo misiolariei, egindako despedida batzuen berri.

Kanpotik etortzen zirenentzako ere, berdin, trena zen garraio bide nagusia. 1924ko "Comunicaciones de Guipuzkoa" gidak, argi azaltzen du gure herrira edozein lekutatik etortzeko zein zen tren konbinazioa, batez ere, ekainaren 25etik irailaren 15arte bainuetxeko urtzak hartzen etortzen ziren bañistei zuzenduta. (24ko urtean argitaratutako datuen arabera, 1.945 biztanle zeukan herriak eta 700 bat bañisten bisita hartzen zuen)

Herrian zehar trenbidea

30 urte atzera egingo bagenu, Arrasatetik gorutza trenak zeharkatzen zituen parajeak asko aldatu dira. Egin dezagun errepasso bat bestela: Kanposantuko bidearen

gainetik pasetako zubitxo, Porrukuen solo ederrak, Saldukua edo Madinabeitia tailerraren parien zegoen trenbideko "diskoa" (jeitsita, treneko makinistari geldiarazteko oharra izaten zen), eskolak, bolaleku eta pelotalekuaren oste putuseintsua, Iturrigorriko paraje pintoreskua bere iturri eta pasonibelarekin, Garziaetxabenak zainduta, Lezama laminazioko tximinia eta grua galantak, estazioa, bere almazena, komunak eta anden biak bost trenbiderekin (inork badaki zergatik bota ziren estazinoko eraikinak?), jarraian Iraetatarren soloak, eta goiko aldean, Atxabaltako inguru elegantea: portasol eta bere pasonibela, Zeledoniuenen ardurapean trenaren hasieratik bukaeraraino eta azkenik, Errotabarriko errebueltza zabala eman ondoren, Maristetako pasonibela, hau Landetako Potenekuak zainduta.

1967ko abenduaren 31an, Estazinoko Jefeak, Victoriano Olalde, banderatxoa jaso eta trenari urteera agindu zion



© Paul Zuazabeitia

Iruñara edo Madrilera joateko, geltoki hau "Norte"koarekin tuneltxo batez lotuta zegoen

Amaieraren agindua Madriletik

60. hamarkada aurrera zihola Alejandro Mendizabal injeneria, Konpainiako zuzendaria eta trenaren gestioaren deszentralizazioaren egilea, jubilatutako egitea da eta jarraian "Angluen" zuzendaritza batzordea Madrilera berriz joaten da. Honekin batera inbertsioen murrizketa, eta jareinkeria, azkenean, mila zurrumurruk iragarrita, Madriletik trena hil zuen dekretoa etorri arte. Erabaki horren atzean zaila egiten da ezkutututako indar bat ez zegoela pentsetia. Denok dakigu 68. urtean, automobila oraindik jende gutxi zeukan gizarte batean, Gatzagara, Arrasatera, Gasteizera edo Donostiara joateko zein aukera geratu zen. Azkenengo automotoreak 1961 urtean erosi ziren, eta euren erabilpena azaltzeko bidaiarien kopurua 67ko lehenengo hamaika hilebetetan 1.670.000 koa (sic) izan zela azpimarratzen zuen orduko kronika batek.

Gauzak horrela, 1967ko abenduaren 31an, Jose Luis Carrascok "agujen" aldatetarako egin ondoren, Atxabaltan inoiz gehiago ezagutuko ez dugun errituala azkenengo aldiz gertatuko zen: Estazinoko Jefeak, orduan Victoriano Olalde, bildutako banderatxoa jaso eta sekula baino txistu-soinu larriagoarekin, trenari urteera agindu zion.

Bertan ziholan, akaso bidaiak horren azkenengo zurrutadak geroago ere dastatzeko asmoarekin, gure Aitxa, Paul, bere Voigtländer erretratatzeko makinarekin, eta Gasteizera bidean trena gelditu zen estazinoetan argazkiak atera zituen.

Egun horretan, urteaz gain, aro bat ere amaitu zen Atxabalta eta bailada guztiarentzat.

Julen Zuazabeitia

VI. Juan Ramon Arana memoriala

□ Egun hau ospatzeko abenduaren 27, 28 eta 29an olinpiada egingo da Almenen

Juan Arana Memorialak seigarren edizioa du autengoa. Urtero urtero kirol desberdin batekin ospatu izan da marianista zenaren memoriala eta maila altuko kirolariek parte hartu izan dute bertan. Aurten, oroitzapen hau ospatzeko, Juan Ramon bera marianista zela kontutan izanik eta gabonetan antolatzen ziren olinpiadak gogoratuz, I gabonetako trofeoa antolatu da.

Abenduaren 27, 28 eta 29an ospatuko da Almenen, Deba Garaiko eskolarteko olinpiada eginez: saskibaloia, futbola, eskubaloia eta krossa.

Abenduaren 27an, futbol, eskubaloia eta saskibaloia partiduak jokatuko dira. Bertan, UDA, Arrasate, Aloña, Bergara eta Eskoriatzako taldeek hartuko dute parte. Partiduak goizez izango dira, 10etan hasi eta ordu biak bitartean jokatuko dira guztiak.

Abenduaren 28an, nesken futbolarik eta krossak izango dute tartea. Futboleant Almen, Aloña eta Bergara lehiatuko dira. Krossa, berriz, infantil



eta kadete mailakoa izango da, bai neskek eta bai mutilak. Azken hau asfaltoan egingo da. Futbola goizean goiz hasiko da, 9,30etan eta, finala egun berean 11etan jokatuko da, krossa, berriz, eguerdian 12etan.

Finalak abenduaren 29an, astelehenez izango ditugu. Eskubaloiko mutilen partidua 10etan hasiko da; 11etan nesken saskibaloiko finala jokatuko da eta bukatzeko 12etan mutilen futbola.

Federatu kuoten inguruko oharra

Murrukixo M.E.ak oraintxu banatu ditu bazkide eta federatu kuotak. Aldez aurretik ohar bat zuzendu nahi du honen inguruan. Alde batetik, federatuta dauden guztiei jakinarazi nahi zaie Murrukixok bere bazkide guztiak Euskal Herriko Mendi Federazioan federatu dituela. Modu honetan Euskal Herrikoan soilik federatzeko aukera dago, Espainiar Federazioan sartu gabe. Erabaki honekin, Euskal Herrikan kanpora dauden errefugioetan ez da beherapenik izango, eta ondorioz urteko kuota 1000 pta merkeagoa da. Norbaitek Espainiar Federazioan federatu nahi izango balu Murrukixo M.E.ko lokaletik pasa daiteke lehebailehen. Bukatzeko, mendira sarritan joaten den jendea federatzera animatu nahi dugu eta bidez batez Murrukixo mendi elkarteak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzera.

Jauregi
Okindegia

Otatora, 10
Aretxabaleta



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak

Otatora, 14
Tfnoa: 79 16 10

Mitartegarai
Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

EGUZKIGRAF
INPRIMATEGIA

Gabon Zoriontsuak igaro eta 1998 urteberria guztiontzat oparoa izan dadila.

Joxemi Elizpuru

“Nire bizitza asko aldatuko da”

Profesionaletan Estepona taldean korrituko du datorren urtean 21 urteko Joxemi Elizburu atxabaltarrak. Aurten Iberdrola taldean denboraldi bikaina egin ondoren Euskadiko erlojuz kontrako txapelduna dugu.

Fitxaketa dela eta komunikabideak ez dute bakean utzi azken egunotan.



• Nola baloratuko zenuke aurtengo denboraldia?

Orokorrean oso denboraldi erregularra eta ona egin dudala esango nuke. Hiru karrera irabazi ditut eta erlojuz kontrako probetan ondo ibili naiz.

• Nola hartu duzu profesionalentara igotzeko notizia?

Oso pozik. Profesionaletan maila altuenean zaude nahiz eta taldea ez izan hain ona. Afizionatueta helburua gora igotzea da eta profesionaletan bertan mantentzea.

• Afizionatu mailatik profesionalentara salto egiteak, zein aldaketa suposatuko du?

Aldaketa handia izango da duda barik. Nire bizitza asko aldatuko da. Profesional maila beste mundu bat da, txirrindularitza lanbide bihurtuko da eta exigentzia gehiago dago. Maila asko igotzen da eta karrera gehiago izango ditugu.

• Momentu honetan ikasten ari zara, txirrindularitzak eragin handia izango du ikasketetan?

Urtebete falta zait automozioiko ikasketak bukatzeko. Orain artean ikasketek zuten lehentasuna baina orain alderantziz izango da, hala ere, ikasketak bukatu nahi ditut baina asignatura erdiak besterik ez ditut egingo. Txirrindularitzan etorkizuna izatea zaila da eta automozioa bukatzen dudanean ere ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake.

• Ezagutzen duzu Estepona taldea?

Profesionaletan maila baxuenerarikoa duen taldea da, Madrilekoa. Hasiera batean hobe da agian horrelako talde batean hastea, azken finean talde batean edo bestean egon karrerek berdin korrituko ditut.

Preferenteak lehen garaipena kanpoan

Kostata baina azkenean lortu du Preferente taldeak etxetik kanpo lehen garaipena lortzea, pasatu den asteburuan Betigazte Lesakako taldearen aurka 0-2ko emaitzaz nagusitu ondoren. Nafarrek ez zituzten gol aukerak behar bezala aprobetxatu eta UDAK joko bikaina erakutsi zuen zelaian eta baita merezitako hiru puntuak lortu ere. Golegileak Kepa Azkue eta Garcia izan ziren. Garaipen honekin klasifikazioaren erdialdean daukagu Aretxabaletako taldea, 22 punturekin.

Peña Zubizarreta torneooa

Gabonetan urtero egin den legez, aurten ere A-7 futbol torneooa izango dugu Peña Zubizarretak antolatuta. Aurreko urteetan ez bezala, aurten 12, 13 urte bitartekoek bakarrik parte hartuko dute torneoan. Partidu guztiak Ibarra futbol zelaian jokatuko dira arratsaldetan 3etatik 5,30etara.

Abenduaren 22an hasiko dira norgehiagokak eta abenduaren 5ean, berriz, finala jokatu eta sariak banatuko dira. Talde guztiek merezitako trofeoa jasoko dute.

LASA
AGUILERA
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

AMETS
TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUIAK

Euskadiko Kutxa
Taldekkoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA



“Ez zaizkit gabonak gehiegi gustatzen”

Txistua jotzen ikusi dugulako egiten zaigu ezaguna Itsasoren aurpegia. Hamar urte zituela Demetrio Iriarterekin hasi zen txistua ikasten. Ordutik urte batzuk pasatu diren arren, herriko jai eta ekintza bereziak alaitzen jarraitzen du Itsasok herriko beste txistulariekin batera.

• Txistuaren etorkizuna nola ikusten duzu herrian?

Musika eskolan txistua ematen da eta badira gazte batzuk ikasten ari direnak. Hala ere, gaztetxoak dira eta tartean oso jende gutxi dago.

• Zaila da txistua jotzen ikastea?

Ez, ez da zaila.

• Solfeo jakin behar da?

Hobe da jakitea, baina jakin barik ere ikas daiteke.

• Asko entsaiatzen duzu etxean?

Egia esateko gutxiegi. Orain astero entsaio bat egiten dugu denok batera.

• Beste instrumenturik jotzen duzu?

Ez, iaz danborila ikasten hasi ginen eta aurten ere jarraitzeko asmoa daukagu.

• Gabonetan ere ekitaldi bat egingo duzue?

Bai, abenduaren 20an. Lehenengo kalejira bat egingo dugu guztiok. Gero gabonetako piezak joko ditugu.

• Gabonen inguruan, tristeak ala alaiak dira?

Nire etxean denok elkartzen gara eta alde horretatik alaiak dira. Bestalde tristeak ere badira, ez zaizkit asko gustatzen.

• Olentzero ala erregeak?

Olentzero.

• Zer eskatu diozu?

Nire etxean sorpresa izaten da.

• Urte berriari?

Aurtengoa bezalako izaten bada nahikoa.

• Behar baino gehiago gastatzen duzu gabonetan?

Bai, erregaluak erosten batez be.

• Jaiotza jartzen duzu?

Bai, badaukagu ohitura.

• Noiz elkartzen zara lagunekin? Astebukaeretan.

• Emakumeak makilatuta ala barik.

Pixka bat makilatuta baina pasatu barik.

• Biziko zinake kotxe barik?

Ez.

• Zer baloratzen duzu pertsonengan?

Zintzotasuna.

• Afiziorik?

Txistua jotzea, irakurtzea...

• Lurperatu ala erraustu?

Erraustu.

• Non irtetzen duzu?

Arrasaten.

• Zinean ikusi duzun azken pelikula?

Aretxabaletan Airbag. Arraro samarra da baina barre batzuk egin nituen.

• Errezetan duzu?

Ez.

• Horoskopoa irakurtzen duzu?

Noizean behin bai, baina sinistu ez.

• Gauzak erosteko denda haundiak ala txikiak?

Txikiak.

• Eguneko momenturik onena?

Ilunkara lanetik etxera bueltatzean.

• Bukatzeko, bizitzeko bakarrik ala beste norbaitekin?

Beste norbaitekin.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



NOIZ HARTU BIAXU BOLDAN PARIE ?



Gabon egunean ateratzen zen talde bat kantari eta dantzatzen. Goizeko 9ak aldera Santa Rita ikastetxean

biltzen ziren, dantzari trajeak jantzi eta eguardirarte kaleko giroa animatzen ibiltzen ziren. Argazkian ikus daitekeen moduan, Belena aldean hartuta ibiltzen ziren kalez-kale. Jantziak ikastetxean bertan egindakoak ziren. Partaideek bi talde osatzen zituzten: talde bat dantzariena, 16 bat neska; eta bestea, abeslariena.

Dantzatzen eta abesten zituzten piezen artean azpimarratzekoak dira: "Abenduak gaur 24" eta "Jesus jaio da" kantak. Gaur egun oraindik ere Santa Rita ikastetxean kantu hauek abestu eta dantzatzeko ("Abenduak gaur 24") ohitura mantentzen da. Itxura denez, "Abenduak gaur 24" azkoitiar irakasle batek ikastetxera ekarritako abestia da.

Argazkia ikastetxea sortu eta berehalakoa da, 1959. urtekoa izan daitekeela esan digute Santa Rita ikastetxean.

Argazkian goian: **Begoña Lizarralde, Arantxa Arenaza, Rosa Mari Lasagabaster, Felisa Pagaldai, Maribel Iturbe, Aurora Iriarte, Mila Akixu, Rosita Bernal.**

Erdian: **Mari Castillo Zubizarreta, Rosarito Arze, Itziar Zubizarreta, Lurdes Lopez de Armentia, Angelita Arenaza, Lurdes Zubia, Mila Urzelai, Arantxa Leanizbarrutia, Mari Karmen Anduaga, Ana Mari Otxoa, Ana Mari Iñurrategi, Sokorro Unanue, Arantxa Zubizarreta.**

Gaztetxoak: **Alberto Zubia, Bitor Bengoa, Miren Garmendia, Juan Antonio Urreta.**

Informazioa eta argazkia: Santa Rita ikastetxea

Abenduak gaur 24

Abenduak gaur hogeita laugarrena goazen artzaitxoak, goazen Belena aingeruak agertu dira eta goazen Belena, goazen lehenbailehen.

Jesus jaio da eta goazen artzaia alaiki hona, hementxe dugu Bera eta ekin, ba, denok batera dantzari.

Zeru goi-goitik lurreraino jeitsi, gizonari haundi pakea ekarri (bis). Ardirik ederrena, gazta txurik onenak ardirik ederrenak zuretzako dira (bis).

Trala larala lara la la.

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA

Gabon zuriak



M. J. Antxaga

Halakoak izatea gustatuko litzaidake. Betidanik gabonak elurrarekin lotzen ditugulako eta normalean ez delako horrela gertatzen. Agian ez ditugu horrelakoak izango, baina aurten behintzat kalean ez dugula ikusi ezingo dugu esan.

Gabonetan elurraz gain umeak ere protagonista bihurtzen dira eta ume kontuak aipatuz **Ortzadarrek** egun berezia ospatu zuen joan den zapatuan. Auskalo taldeaz gozatzeko aukera izan zuten umeek. Gainera, objektu zaharren lehiaketa ere egin zuten eta denetik ikusteko aukera izan zen bertan: eskalapoiak, kutxak, kafeterak, etabar. Ia ia ni ere gauza zahar bezala aurkezteko atrebentzia izan zuen batenbategi. Dana dala, lehiaketako irabazlea **Antxon Isasisasmendi** izan zen; bigarrena **Ander Ibañez** eta hirugarrena **Gilen Aginagalde**. Ortzadarrekin jarraituz, hilak

24an, baserriz-baserri joango dira kantuan, beraz kantatzea gogoko duzenok badaukazue plana gura izan ezker.

Kantu eta musika gaiekin jarraituz, Leizarra musika eskolako txistulariak 20an Kurtzebarri eskolako aretoan eskainiko dute kontzertua. Txistulari gazteak **Martin Antxia**, **Garazi Ohian-guren**, **Kattalin Antxia** eta **Xabier Arenaza** dira eta helduak **Iñaki Barrena**, **Jokin Antxia**, **Itsaso Uriarte**, **Josu Zabala**, **Jasone Altuna** eta **Eneritz Pagaldai**. Perkusioaz **Unai Frantsesarena** arduratuko da eta teklatuaz **Nagore Olave**. Zuzendari lanak, berriz, **Iñaki Barrenak** egingo ditu. Edurra belaunetaraino botatzen badu nik uste kalejira behintzat ezingo dutela egin.

Beste gai bati helduz, kofradiako batzordekide berriak izendatu dira: **Antonio Serrato**, **Alberto Zubizarreta**, **Manolo Urtubi** eta **Jose Makazaga**. Jarraitzen dutenak, berriz, **Dabid Agirre**, **Pili Le-nizbarrutia**, **Alfredo Meabe** eta **Angel Zubillaga** dira. Beraz, badakizue norengana jo beraien beharra izanez gero.

Kirol kontuetara pasatuz, urte bukaeran UDAK bere lehen garaipena lortu du etxetik kanpo. Gole-gileak **Kepa Azkue** eta **Eric Garcia** izan ziren. Ea ba urte berria modu berean hasten duten.

Eta badakizue gabonekin lotuta opariak eta oporrak datoz.

Ondo pasau gabonak eta urte berri on!

A R E T X A Z O K A

LANA

- Emakume bat behar dut etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 76 36 21. (arratsaldeko 8etatik 9etara).
- Emakume bat behar da ume bi zaindu eta etxeko lanak egiteko. 79 65 48 (arratsaldeko 7etatik gaueko 10etara deitu).
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Harremanetarako deitu 77 11 85 telefonora.
- Ingeles, gaztelera eta euskerazko itzulpenak egiteko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 25 75.

ETXEBIZITZA

- Pareja batek etxebizitza erosiko luke Portasolen. 79 04 62. Mari Josegatik galdetu.
- Urtarrilaz geroztik Zuhaitz taberna alokatzen da Leintz Gatzagan. 71 41 21.
- Pisu bat alokatuko nuke. 71 42 86 Jabierregatik galdetu.
- Zeramika tailerra ipintzeko lokala alokatu edo antzeko lanbidea duen norbaitekin banatuko nuke. 71 42 86. (Jabier).

DENETARIK

- Karreterako bizikleta salgai. Egoera onean. 79 29 12 (dendako ordu-tegian deitu).
- Adornozko afiela aurkitu zen jubilatuen egunean. Interesatua udaletxeko gizarte zerbitzutik pasa dadila.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.



PODER ABSOLUTO

EEBB 1997

ZUZENDARIA: Clint Eastwood.

AKTOREAK: Clint Eastwood, Gene Hackman, Ed Harris, Judy Davis, E.G. Marshall.

“Poder absoluto” Clint Eastwood-en 40. pelikula da eta 19.a zuzendari lanetan. Gero eta pelikula interesgarriagoak eskaintzen dizkigu Eastwood-ek; gehien landu dituen generoak “wester”-a eta “thiller”-a izanik. Luther Whitney (Clint Eastwood), lapur iaioa eta fina, Walter Sullivan (E.G. Marshall) jaun aberatsaren etxean lapurtzen ari dela, EEBBetako presidentearen (Gene Hackman) eta Sullivanen emakumearen arteko maite harremanen lekukoa izango da. Elkarren artean ezta-


baida sortuko da, andreak bero

beroan, presidenteari eraso egingo dio eta honen bizkartzainak hil egingo du. Lehendakaritzako administrazio buruak “Etxe-zuria” garbi utzi nahian Luther-i leporatuko dio hilketa.

“Poder absoluto”-n, zuzendariaren ohiturari jarraituz, biolentziako eszenekin batera (Sullivan andrearen hilketa), une biolentoak ikusiko ditugu (Sullivan jauna eta presidentearen arteko konfliktoa), baita biolentziak errito itxurak hartzen dituen sekuentzi luzeak ere (kafetegiko atentatua). Pelikularen dramatismoa areagotzeko Eastwoodek gaua eta argitasun goibela erabiltzen ditu dramatismoa areagotzeko. Zentzu honetan “Poder absoluto” eszena ikusgarriz betetako thriller geldoa eta intimista dugu. Xehetasunez egindako pelikula on bat azken batean.



Liburutegiko txokoa



Demokratak eta biolentoak

Joxe Azurmendi

Elkar, 1997

Honako hau Azurmendiren azken Hsaiakera liburua duzue eta Euskaldunon arazorik garrantzitsuenari adarretatik heltzen diona; arazoaren konpontzea berez ekarriko ez duen arren, guztioi erreflexiorako bide berriak irekiko dizkiguna. Liburu honekin autoreak probokatu egiten du, azken aldian posturak urrundu eta erradikalizatuz doazela ikusirik, postura horien egia eta gezurrak argi utzi nahi ditu behintzat. Liburu hau Durangoko Azokarako argitaratu berria da eta Azokan bertan lehen argitalpena egin zen. Gaiaren gaurkotasun eta garrantziak eta Azurmendiren maisutasunak ziur irakurle exigenteenak ere asetuko dituela. Aipatu bestalde euskal saiogile bikain honen “Espainolak eta Euskaldunak”, “Gizabidearen bakeak eta gerrak” eta honekin zer ikusia duen “Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan” liburuak aurkitu ahal dituzuela besteak beste Udal Liburutegian (Bere liburu berrienak dituzue hauek).

Joseba Lopez de Armentia

Z A R A I A Z I N E M A

Abenduak 19, 20, 21, 22

PODER ABSOLUTO

Abenduak 21 (Umeentzat)

EL LADRON DE BAGDAD

Orduetgia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

Datorren urteko pelikulak: LA BODA DE MI MEJOR AMIGO
SIETE AÑOS EN EL TIBET
PERDITA DURANGO
THE GAME
CONSPIRACION
FULL MONTY

Oharra: Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean ez da zinerik egongo.

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

Etxabe harategia

Durana 4
☎ 79 16 61


Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

KIXKOR TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

ABENDUA

19

egukotxa

KONTZERTUA

Leizarra musika eskolak kontzertua eskainiko du arratsaldeko 7etan Zaraia zineman.

20

zapatua

KONTZERTUA

Aretxabaletako txistulariak Kurtzebarri eskolako aretoan. Goizeko 11,30etan kalejira eta 12,30etan kontzertua, Gabeko izar, Hator hator, Heldu da, Eguberriko zortzikoa, Demetrio Iriarteren Eguberri... joko dituzte.

KONTZERTUA

Aretxabaletako akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko digute arratsaldeko 8etan Aretxabaletako parrokan.

21

domeka

MENDI IRTEERA, TURROI EGUNA

Zaraia M.Tak Orkatzategira irteera. Bertan turroia eta txanpaina izango dira. Irteera 8,30etan Nafarroa kaletik.

MENDI IRTEERA

Murrukixo M.E.ak edurretara irteera. Goizeko 9etan paternoitik.

21-24

LIBURU AZOKA

Loramendiko lokalean, liburu eta diska azoka. Abenduaren 21etik 24ra.

24

eguaztena

ORTZADARREKIN KANTUAN

Baserriz-baserrri kantuan irteteko goizeko 8,30etan plazan. Baserritar jantzita. Ondoren bazkaria batutakoarekin.



OLENTZERO

Arratsaldeko 6,30etan irtengo da kiroletxetik. Kultura saila eta Ortzadar taldearen eskutik. Ortzadarrek Belena jarriko du plazan.

25

eguna

MENDI IRTEERA

Murrukixo M.E.a Kurtzebarria.

27


zapatua

INTSUMISO EGUNA

Ekintza ugari egunean zehar.

UMEENTZAKO PARKEA

◆ Parrila
espezialitatea



GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 79 68 57

28
domeka

KONTZERTUA**Naroa Enekotegi mezzo sopranoa**

Aretxabaletako parrokian arratsaldeko 7etan kultura sailak antolatuta.

31
eguztena

BIZAR ZURI

Arratsaldeko 6,30etan. Ortzadar Atsedeen taldeak antolatuta.

1998.....

URTARRILA 1
eguna

MURU-ra IRTEERA

Zaraia M. Taldeak Murura egingo du irteera. Ondoren Meza eta Salda Galartzan.

5
astelehena

ERREGE KABALGATA

Arratsaldeko 6,30etan irtengo da kiroletxetik. Aretxabaletako Udala, herriko guraso elkarteak eta Ortzadar Atsedeen taldeak antolatuta.

10
zapatua

TAKOLO, PIRRITX eta PORROTX

Kirol Etxean, arratsaldeko 5etan.

Erakusketak**LEINTZ BAILARAK 500 URTE GIPUZKOAN**

Abenduaren 13tik urtarrilaren 4ra. Euskal txokoa astegunetan 6etatik 8etara, astebukaeretan 12,30etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara.

**TRENAREN ARGAZKI ZAHARRREN ERAKUSKETA**

San Silvestre egunez, trena kendu zela 30 urte bete diren honetan, argazki artxiboko taldeak erakusketa antolatu du. Abenduaren 29, 30, 31 eta urtarrilaren leian egongo da ikusgai Loramendiko lokalean. Trenaren inguruko argazkiek, historia, orduko periodiku zatiek eta trenarekin lotutako hainbat elementuk osatuko dute erakusketa. Guztira 50 argazki inguru izango dira.

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxiko M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otorora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETA**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA**ITURGINTZA**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

sofa
leku

a, eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92